

PDa diseinatzen gauden bitartean, ezer ez ahazteko eta hartu ditugun erabakien egokitasuna baloratu eta agian erabaki berriak hartzeko hurrengo [autoebaluaziorako kontrol zerrenda](#) erabili.

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	IES Saturninon de la Peña BHI	Kodea:	014441	Ikasturtea:	2024-2025
Eta:	DBH	Zikloa/maila:	DBH 2		
Jakintzagaia:	NATUR ZIENTZIAK 2	Irakasleak:	AITOR DIEZ ZIGOR DE LA PRESA		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

JUSTIFIKAZIOA

Irakasleek beraien jarduerak planifikatu behar dituzte. Alde batetik planifikazio hau ezinbestekoa da legeak esandakoa betetzeko eta norberaren testuingurura egokitzeko. Honi planifikazio didaktikoa esaten zaio eta programazio didaktikoz, departamenduek egindakoz, eta gelako programazioz, irakasleek beren egununeroko lanerako prestatutakoz, osatuta dago.

XXI. mendeko “ezagutzaren gizarteak” aldaketa sakonak eskatzen ditu, eta aldaketa horiek berekin dakartzate eskari kognitibo berriak eta ikasleek eskuratu beharreko gaitasun berriak. Hori dela eta, irakasteko modu berriak eta eskolan elkarri eragiteko modu berriak behar dira. Ikasleen aniztasunak paradigma-aldaketa eskatzen du, egitura malguagoak eta irakaskuntzan kolaboratzeko prozedurak izateko, eta irakasleen arteko eta ikastetxeen arteko sareak lotzeko.

Ikasleen egoera

Gizartea osatzen dugun pertsonen ezaugarri nagusia indibidualtasuna da, hots, pertsona bakoitza desberdina gara eta, ondorioz, gure ikasleak ere. Heterogeneotasun fisikotik hasi eta arlo psikosozialeraino iritsita gure ikasleriaren ezaugarri nagusia heterogeneotasuna da. Haietako bakoitzak amets, helburu, gogo eta nahi desberdinak ditu eta egoera sozioekonomiko zein jatorri kultural anitzetako etxeetan hazi dira. Horrek guztiak eragina du institutuan, izan ere, ikasketekiko interes eta maila desberdinak izatea eragiten du.

Oro har, DBHko ikasleak 12-16 urte bitarteko nerabeak izaten dira, sozializatze eta hazte aldaketa nabarmenenak bizi ditugun garaiakoak. Arlo akademikoari begira, DBHko geletan egoera hauek aurki daitezke nahastuta:

- Hezkuntza-laguntzaren berariazko beharrak dituzten ikasleak
- Aurreko mailako helburuak lortu ez dituzten ikasleak, eta, ondorioz errepikatu dutenak
- Ikasgairen batean aurreko mailako helburuak lortu ez dituzten ikasleak, eta gaingitu gabeko irakasgaiekin promozionatzen dutenak
- Aurreko mailako ikasgai denak gaingituta hurrengo kurtsoan ari dena
- Beste herrialde batetik heldu berri eta euskara (eta batzuetan gaztelania ere) menperatzen ez duten ikasleak
- Interesa duten eta beren ikasketak arrakastaz egiteko gaitasuna duten ikasleak
- Institutuan jarraitzea behartutako motibaziorik gabeko ikasleak

Ikasle gehienak aurreko taldeetako bat baino gehiagoko kide da, izan ere, interesa duten ikasle guztiek ez dituzte beti helburu akademikoak lortzen arlo guztietan, eta, motibazio gutxiko ikasleek ez dute beti zailtasunak erakusten arloak gaingitzea.

Azpimarratzeko beste ezaugarri bat ama-hizkuntzarena da. Gure institutua nagusiki erdalduna den ingurune batean kokatua dago eta beste edozein herritan bezala, gero eta ohikoagoak zaizkigu atzeritik heldutako ikasleak edo atzerriko herrialdeetan hazitako gurasoak dituztenak. Guzti honek sortzen du ikasle gutxi batzuek baino ez dutela euskara ama-hizkuntza, eta, beti D ereduan ikasten egondako askok ere zailtasun nabarmenak aurkeztea Euskaraz aritzeko.

Era honetan, gure erronka egoera guzti horiek uztartuta dituen gelan ikasle gehienek arrakasta akademikoa bultzatzea da, bakoitzak azaltzen duen zailtasunari aurre egiten laguntzen saiatuz eta motibazioa piztuz zein jadanik dutenengan mantenduz.

Mailaren datu esanguratsuak

Aurten DBH 2n 74 ikasle daude 4 taldetan banatuta gehienak iaz gure ikasleak izandakoak.

2A	2B	2C	2D
19 ikasle daude, 9 neska eta 10 mutil.	18 ikasle daude, 10 neska eta 8 mutil. Talde honetan erlijioa egiten duten ikasleak daude.	19 ikasle daude, 7 neska eta 12 mutil. Ikasle berri bat etorri da kurtsoa hasita zegoelarik.	18 ikasle daude, 10 neska eta 8 mutil.

Ikastetxearen proiektuak

Ikastetxean gauzatzen diren proiektuak hauek dira, besteak beste:

Agenda 2030 - Ikasle eko-ordezkarien taldea, koordinatzaile lanetan aritzen dira irakasleekin batera, A2030eko Garapen Iraunkorrerako Helburuetan oinarritutako ekintzak antolatu eta garatzen ditu. Era berean, garapen iraunkorrarekin zerikusia duten curriculum-elementuak (curriculum ekosozialak markatuak) lantzen dira ikasgaietan, ahal den heinean gertuko arazo eta erronken lanketaren bidez. Orokorrean, bizimodu osasungarriak sustatzen dira iraunkortasun- eta kontsumo-balioak ikuspegi kritikoaz baloratu eta egokienak hartzea bilatzen da. Honetarako ezinbesteko ezaugarritzat du ikasleak garapen jasangarriaren protagonista aktibo bihurtzea eta XXI.mendeak dituen erronkei aurre egiteko

beharrezkoa den jarrera parte hartzailea garatu nahi da horretarako beharrezkoak diren motibazioa, ezagutzak, konpetentziak, jarrerak eta konpromisoak garatuz.

Hezkidetza - Proiektu eta plan zehatza ez izanda ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea eta sistematikoki gizartean ematen diren emakumearen eskubideen aurkako erasoen kontzientzia eta horiek ezabatzeko gogoia piztea bilatzen duen irakasle talde bat osatuta dago. Hauek batez ere, data zehatzetarako (Azaroak 25, Martxoak 8, Ekainak 28...) ekintzak, gogoetak, tutoretza zein ikasgaietarako proposamenak egiten dituzte. Genero-indarkeriaren prebentzioa eta inolako arrazoi pertsonal eta sozialengatik bereizkeriarik eza izango dira jarduteko irizpideak. Argi eta garbi saihestuko dira portaera eta eduki sexistak, eta arloetan emakumezkoen papera (literaturan, artean, historian, zientzian etab) nabarmenduko da.

Digitalizazioa: Ikasleen konpetentzia digitala garatzea irakasle guztion helburua den heinean beharrezkoa da irakaslegoa ere mundu digitaletik gertuago egon eta horretarako formakuntza egokia jasotzea. Era honetan, zentruan sortutako Digitalizazio Batzordeak eremu honetan atzean ez geratzeko erabakiak bideratzen ditu. Nagusiki Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeak dakartzan erronkak aztertuko dira eta hezkuntza komunitateak horietaz egingo duen erabilpena ahalik eta bateratuena izatea bilatuko du, bai komunikazioetarako zein ikasgaien garapenerako. Beti ere, tresna horiek ematen dituzten aukerak zein sor ditzaketen arrisku-egoerak aztertuko dira, eta, egokienak aukeratzeaz gain, haien erabilpena arautuko du. Ikasgaietan arau horiek modu hezitzailean jarraitzea bultzatuko da, hau da, ikasleek arriskuak identifikatu (datu pertsonalen babesa, Sare Sozialek sortzen duten antsietatea...) eta prebentzio-neurrien beharraz ohartzea izango da helburua. Era honetan, hezkuntza komunitatea osoa teknologiaaren erabilera kritikoa, legekoa, segurua, osasungarria eta jasangarria egitearen garrantziaz eta beharraz jabetzea izango da helburua.

Normalkuntza: Ulibarri Progamaren barruan, Normalkuntza taldeko irakasleak, batzuetan laguntzeko bolondres agertzen diren hainbat ikaslerekin batera, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak burutzen dituzte. Hauetako gehineak zehatzak eta puntualak badira ere (hitzaldiak, filme emanaldiak, mintzodromora joatea...), helburua euskarak izan behar duen ardatz nagusi bilakatzea da. Euskararen diglosi egoeraren baitan eta gure institutua nagusiki erdalduna den ingurune batean kokatuta egonik euskararen erabilera normalizatzen lagundu nahi du proiektu honek, euskara hezkuntza-komunitatearen jardura guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin. Horretarako, ikasleei euskaraz bizitzeko aukera desberdinak

hurbiltzen zaizkie (filmak, liburuak, idazleen aurkezpenak, beste euskalki batzuetako berbak, lehiaketak...) jakinda ikastetxetik kanpo dituzten erreferentzia nagusiak beste hizkuntzetan direla.

Hedatze: HEDATZE proiektuaren esparruan, tailer eta errefortzu desberdinak antolatu eta eskeintzen dira, batez ere aurreko ikusturteetako pendienteak dituzten ikasgaiak berreskuratzeko.

Urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak:

- Laborategi lana indartzeaz gain (horretarako eskeintzen da Zientzia ikerketarako hurbilketa ikasgaia), testu ezberdinen trataera lantzea ondo legoke, ikasleen kopuru handi batek ulermen arazoak baititu. Parte hartzea bultzatzea, ikasleen iritzi pertsonala lantzeko eta arrazonamendua erabiltzeko.

Curriculumaren plangintza (["ebaluazioari buruzko oharrak" Genially](#))

Ikas Unitateen Izenburua	Oinarrizko jakintzak (<i>idatzi osorik</i>)	Konpetentzia espezifikoak (<i>Idatz daitezke osorik edo zenbakiak bakarrik jarrita</i>)	Ebaluazio-irizpideak (<i>Idatz daitezke osorik edo zenbakiak bakarrik jarrita</i>)	Deskriptore operatiboak (<i>soilik kodeak</i>)
1.Ebaluazioa (irailaren 9tik- azaroaren 26 arte)				
Metodo Zientifikoa (Irailak 9-16)	Oinarrizko trebetasun zientifikoak	1, 2, 3 eta 4	1.3 Problema ebaztea edo prozesu naturalak azaltzea, emandako ezagutzak, datuak eta	HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII5

Neurketak eta Magnitudeak (Irailak 17- Urriak 24)	Oinarrizko trebetasun zientifikoak		informazioa, arrazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo baliabide digitalak erabiliz.	
Materia eta haren egoerak (Urriak 25 - Azaroak 26)	Materia		2.2 Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz. 4.1 Egiaztatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz. 1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz. 3.2 Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak,	HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5 eta KPSII4. HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3 HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII5 HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.

			formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...). 4.4 Esperimentazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoen bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).	HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3
2.Ebaluazioa (azaroaren 27tik Otsailaren 26ra)				
Materia eta haren egitura (Azaroak 27 - Urtarrilak 10)	Materia eta aldaketa	1, 3, 4, 5, 6 eta 7	1.4 Fenomeno naturalei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, beharrezkoa denean birformulatuz. 3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritiko mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz. 4.1 Egiaztatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak	HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII5 HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4. HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6,
Aldaketa fisikoak eta kimikoak (Urtarrilak 13 - Otsailak 26)	Materia eta aldaketa			

			planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz. 4.2 Fenomeno zientifikoei buruzko esperimenduak egitea eta datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen eta gero eta autonomia handiagoz erabiliz 5.1 Komunitate zientifikoarekin eraginkortasunez komunikatzea, zientziaren oinarritzko arauak behar bezala erabiliz, neurketa-unitateen erabilera, tresna matematikoak eta formulazio- eta nomenklatura-arauak barne. 6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz. 7.1 Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta zientziak teknologian, gizartean eta ingurumenean dituen	KD1, KD2, KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3 HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3 STEM4, STEM5, KPSII4, HK1 eta KAKK2. STEM2, STEM5, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1. STEM2, STEM5, STEM6,
--	--	--	---	---

			ondorioak onartzea eta balioestea, zientziako gizon-emakumeen analisi historikoaren eta aurrerapen zientifiko bidez.	KD4, KPSII4, HK1, HK4 eta KAKK1.
3.Ebaluazioa (Otsailaren 27tik Ekainaren 23ra)				
Interakzioa (Otsailak 27 - Apirilak 30)	Interakzioa eta energia	1, 3 eta 7	1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz.	HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII5
Energia (Maiatzak 5 - Ekainak 23)	Interakzioa eta energia		3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz. 7.2 Ingurunean ingurumen- eta gizarte-premia garrantzitsuenak detektatzea, horiei soluzio jasangarria, sortzailea eta	HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.

genero-irizpidea kontuan hartuta
emanez

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.

Metodologia aktiboak erabiliko dira, hezkuntza prozesua testuinguruan kokatzen dutenak, edukiak modu erlazionatuan aurkezten dituztenak eta proiektu edo kasu-azterlanen bidezko ikaskuntza sustatzen dutenak, ikasleen parte-hartzea, esperimentazioa eta motibazioa sustatuz.

Metodologia ikasleen ezaugarrietara egokituko da, haien aniztasuna kontuan hartuta, ikasleek beren kabuz ikasteko eta taldean lan egiteko duten ahalmena bultzatuko du, eta ikasteko erritmo desberdinei erantzungo die.

Lehenetasuna emango zaio edukiak ulertzeari eta trebetasunak garatzeari, ikaskuntza mekaniko edo memoristiko hutsaren aurrean, nahiz eta hau ere beharrezkoa den.

Egindakoari buruzko hausnarketa pertsonala eta ikasitakoari buruzko ondorioak lantzea sustatuko da (autoebaluazioaren bidez eta beti irakaslearen atzeraelikadura bat bermatu ahal denean), ikasleak bere ezagutzekiko duen aurrerapena aztertu ahal izateko.

METODOLOGIAK ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

METODOLOGIA AKTIBOAK (Hautatu X batekin)

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK (Hautatu X batekin)

[Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza](#)

[Ikaskuntza kooperatiboa](#)

X

[Erronketan oinarritutako ikaskuntza](#)

Elkarlaneko ikaskuntza

X

[Flipped Classroom](#)

Aurkikuntza bidezko ikaskuntza

[Arazoetan oinarritutako ikaskuntza](#)

X

[Pentsamendu konputazionala](#)

Design Thinking		Visual thinking	
Zerbitzuan oinarritutako ikaskuntza		Lan txokoak	
Ikerkuntzan oinarritutako ikaskuntza	X	Pentsamendu errutinak	
Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza		Taldeko teknikak eta dinamikak	
Jokoetan oinarritutako ikaskuntza	X	Gamifikazioa	
Beste batzuk (besteren bat erabiltzekotan zehaztu zein)		Beste batzuk (besteren bat erabiltzekotan zehaztu zein)	

Taldekatzeak

Ikasleen taldekatzeak gela zein gelatik kanpo egingo diren jardueren arabera aldatuko dira, lan pertsonala eta banakakoa alde batera utzi gabe.

Talde heterogeneoak	X	Talde handia	X	Talde finkoak	
Aditu-taldeak		Talde interaktiboak		Talde malguak	
Banakako lana	X	Beste batzuk			

Baliabide digitalak **(Azpimarratu eta beltzez jarri)**

Komunikatzeko	Informazioa zabaldu zein jarduerak burutzeko	Ebaluazio Tresna bezala <i>(ikasleek sortzen dutena)</i>	Ebaluazio Erreminta bezala	Beste batzuk:
<u>Gmail</u>	<u>Classroom / Drive</u>	Online formularioak (Google Forms edo antzekoak)	Online formularioak (Google Forms edo antzekoak)	Arduino

<u>Classroom</u>	Sites	Kahoot, Quizziz...	<u>Aplikazio desberdinek atzeraelikadurarako ematen dituzten aukerak:</u> - Google aplikazioen “iruzkin” aukera - Classroomeko iruzkinak - <u>Classroomeko errubrikak</u> - ...	Scratch
Moodle	<u>Aurkezpenetarako programak:</u> - <u>Power point, google aurkezpenak</u> - <u>Genially, Canva...</u>	Porfolio digitala	Atzeraelikadura bideo bidez ematea pantaila grabatuta (loom, clipchamp edo antzekorik erabilia)	micro.bit
<u>Calendar</u>	<u>Eduki bideoak:</u> - <u>Internetekoak</u> - Norberak sortuak (Clipchamp, Loom edo antzekorik erabilia)	<u>Dokumentuak online (Google Docs edo antzekoak)</u>	Excelen egindako errubrikak	...
Autocrat	Bestelako jardueretarako bideoak: - Filmeak - Dokumentalak - Elkarriketak - Abestietako bideoklipak - ...	<u>Aurkezpen digitalak:</u> - Genially - <u>Canva</u> - <u>Google aurkezpenak</u> - <u>Power point</u> - ...	Co-Rubrics	
...	Entzunezkoak: - Podcastak - Irratsaio arruntak kateen “nahieran” zerbitzuetatik	Ikus-entzunezkoak: - Bideoak - Audioak - Abestiak		

	hartuak - Abestiak	- Kartelak - ... Aplikazio zehatzen bat erabiltzea eskatzen badiezu zehaztu: - Canva - Genially - Clipchamp - ...		
	Hiztegiak eta itzultzaileak online		Additio koaderno digitala eta bere errubrikak	
	Padlet		...	
	PearDeck, Nearpod...			
	Kahoot, Quizziz...			
	Autozuzenketak egiteko aplikazioak			
	Ed-puzzle			
	Wakelet			
	...			

Espazioak

	<u>Gela</u>	Bio-Geo laborategia	Liburutegia
--	-------------	---------------------	-------------

Bikoizketa Gela	<u>Fi-Ki laborategia</u>	Areto nagusia
Patioa	Teknologia gela	Ortua
...	Informatika gela	...
	Plastika gela	
	Gimnasioa	

Jarduera Osagarriak

2 DBHrako ez dago jarduera osagarriarik aurreikusita.

Aniztasunari arreta

Programazio didaktiko honetan aurreikusitako jarduerak ikasleen konpetentziei, erritmo eta estiloei, motibazioei, interesei, egoera sozioekonomiko eta kulturei, linguistikoei eta osasunari dagozkien egoerei erantzuna ematera bideratutako hezkuntza-interbentzioak biltzen dituzte, etapa honetako berezko ikaskuntzetarako sarbidea, funtsezko konpetentziak eskuratzea eta helburuak lortzea errazte aldera.

Ikas egoera / unitate didaktiko bakoitzean **IDU printzipioa** betetzen dela bermatuko da. Irakaslea [Txantiloia](#) honetan oinarrituko da hausnartzeko prestatu dituen jarduerak printzipio hauek betetzen dituzten edo ez. Printzipio horiek bermatzeko formakuntzetan ikasi ditugun estrategiak eta tresnak erabiliko ditu irakasleak modu orokorrean:

- Modu argian idaztea, eta, beharrezkoa bada, tresna digitalen bidez, testuaren tamaina, kolore etabar proposenak erabiliko dira.
- Baliabide edo edukiak modu anitzetan transmitituko zaizkie ikasleei: testu moduan zein ikus-entzunezko bezala. Beharrezkoa bada, testua audio bihurtzeko tresnak edo bideoak azpigituluekin erabiliko dira.
- Ikasleei erakutsiko zaizkie goian azaldutako tresnak, lagungarria zaizkiela ikusten bada

- Hainbat hizkuntzatan aritu behar bada, irakasleak itzultzaile egokiak erabiltzeaz gain, ikasleei emaitza onak ematen dituen bat gomendatu eta erabiltzen utziko dio.

Modu zehatzagoan, ikasle guztien beharrei erantzuten saiatzeko, [neurri metodologikoak](#) eta [ikasgai eta gelako antolaketa-neurriak](#) orokorrak aplikatuko dira honako kasu hauetan.

Horretaz gain, kurtsoan zehar sor daitezkeen egoera berriei (disrupzioa, osasun emozionaleko konplikazioak, arazo familiarak, gaixotasunak...) aurre egiteko irakas taldeak, ikasketaburutzak eta orientatzailearen artean adostutako neurriak ere aplikatuko dira.

Aniztasunari erantzuteko egin beharreko programei dagokienez, egoera desberdinei aurre egiteko neurriak Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP) bilduko dira hurrengo kasuetan:

- Ikasgairen bat pendiente izan duten ikasleei
- Mailaz igaro ez direnei
- Hezkuntza laguntza berariazko premiako ikasleak
- Dibertsifikazio Kurrikularrean dauden ikasleak
- HIPI ikasleak

EBALUAZIOA (*"[ebaluazioari buruzko oharrak](#)" Genially*)

Ikasleen ikaskuntza ebaluatzeke moduari buruzko zenbait alderdi daude.

- **Ebaluazioak jarraitua** izan behar du, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan murgilduta egon behar duelako, eta ikasleen aurrerapena kontuan hartu behar delako, zailtasunak gertatzen diren unean hautemateko, haien arrazoiak jakiteko eta, ondorioz, gaitasunak eskuratzea bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko, hartara, ikaskuntza egoki jarraitzeko.

- Ebaluazio **hezitzailea** izango da ikaslearen irakaskuntza-prozesuak eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna (irakasle eta ikasleen arteko prozesu partekatua)
- Ebaluazioa **hezigarria** hobesten da. Hau da, Ikasleak bere ebaluazioaren ardura hartzen du eta, horretarako, irakasleak autoerregulaziorako, autoebaluaziorako eta gogoetarako aukerak ematen dizkio.
- Ebaluazio **objektiboa**, hau da, ebaluazio prozesuak ebaluazio irizpide zehatzak behar ditu ikasleen ikaskuntza guztiak baloratu ahal izateko.

Azaldu den bezala, ebaluazio jarraitua hobesten da, hau da, une oro egin behar da, **zailtasunak** sortzen diren unean **detektatzeko eta neurri zuzentzaileak ezartzeko**. Horretarako, hiru ebaluazio mota ezarri behar ditugu: hasierakoa, jarraitua eta amaierakoa.

Hasierako ebaluazioa:

Kurtso hasieran, ikasleei dagozkien aurreko etapako edo ikasturteko txosten pertsonalak aztertuko dira, eta, orientatzailearekin aztertuko dira.

Horretaz gain, aurretiaz gure ikasle izandakoen kasuan, iazko tutore eta/edo irakasleen datuak eta gomendioak jasoko dira.

Hasierako lehen bi asteetan, ikasleen behaketa burutuko da, euren arteko elkarrekintzak, dituzten lan ohiturak eta aurrezagutzak.

Horretarako estrategia ezberdinak landuko dira, canvaren bitartez egin beharreko proiektu txikien bidez, klaseko testuen eta azalpenen ulermena behatuko da, eta bai klasean zein etxean izango dituzten lan ohiturak.

Ebaluazio jarraitua

Ikasleen ikaskuntza prozesuaren ebaluazioak kontuan hartuko du ikasleen aurrerapen orokorra, curriculumeko elementuak garatuz. Ikasturtean zehar, **irakasleak lortutako lorpen mailaren berri emango die ikasleei, eta aldian-aldian familiei.**

Ikasgaiaren edozein unetako lana eta gertakariak ebaluazio hau egiteko balioko diote irakasleari, eta, beraz, ebaluagarriak izan daitezke eta ikasle zein familiei zuzendutako atzeraelikadura bat eman dezakete. Hala ere, irakasleak ebaluazio jarraitu hau **modu ordenatu eta esanguratsuan aurrera eramateko, irakasleak ikasleei jarduera/erronka zehatzak planteatuko dizkie, hortik ebaluazio tresnak** (ikasleak ekoitzitakoa) **lortu eta horiek ebaluatzeko erreminta** egokiak erabiliz. Sistema horretan erabilitako **tresnak anitzak** izango dira, eta aurreikusita egongo badira ere, kurtsoan zehar baloratuko da aldaketak egitearen egokitasuna horiek ikasleen aurrerapena neurtzeko nahikoak ez direla ikusten bada. Beheko taulan zehaztu ditugu tresna zein erreminta horiek.

Ebaluazio guztietan irakasleak AUTO-, KO- eta HETEROEBALUAZIOAK bideratuko ditu behean zehaztutako tresna eta erreminta horien bidez. Sistema honen ezaugarriak dira:

- Begirada anitzetatik informazioa jaso eta ikasleak euren ikaste prozesuan ardura maila altuagoa hartzea bilatzen du.
- Denek ez dute zertan eraginik izan kalifikazio sisteman, baina, ebaluazio mota guztiek atzeraelikadura bat sortuko dute ikasleak hausnartu eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.

Ikasle baten **aurrerapena egokia ez denean, hezkuntza indartzeko neurriak ezarriko dira**. Neurri horiek **ikasturteko edozein unetan** hartuko dira, zailtasunak atzeman bezain laster, eta hezkuntza prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoak diren konpetentziak eskuratzea izango dute helburu.

Hiruhilekoaren bukaeran, ikasle bakoitzak egindako aurrerapena baloratuko da ebaluazio saioetan. Ebaluazio bakoitzaren ondoren, ondoko erabakiak hartuko ditugu:

- Indartzeko neurriak behar dituzten ikasleak identifikatu eta aurrera egiten laguntzeko lan espezifiko edo neurriak diseinatuko dira.
- Zabaltzeko edo aberasteko neurriak behar dituzten ikasleak identifikatu eta aurrera egiten laguntzeko lan espezifiko edo neurriak diseinatuko dira.

Amaierako ebaluazioa

Ikasturtearen amaieran egingo da, ebaluazio jarraituaren ikasgaian landu beharreko **konpetentzietan ikasleak lortu duen aurrerapenaren neurria zehazteko**. Ikasgaiari dagokionez, kurtsoan zehar egindako ebaluazio jarraituaren emaitza izango da, eta, **honen berri emango zaio ikasle zein familiari**.

Horretaz gain, amaierako ebaluazioan, irakas taldeak ikasketaburutzarekin batera ikaslearentzako **hurrengo ikasturteari begira egokienak diren neurriak eta erabakiak hartuko** ditu (promozionatzea pendienteekin, errepikatzea...)

Bestalde, **funtsezko konpetentzien aurrerapen maila ere ebaluatuko da** irakas talde osoaren artean eta ikasgai guztien emaitzak kontutan hartuta.

Horretarako, berrikuntzako arduradunek ikasgai bakoitzak funtsezko konpetentzia bakoitzaren gainean duen pisua kontutan hartuta sortutako sistema objetiboa erabiliko da.

Ebaluazio teknikak (prozedurak, metodoak)

	Ebaluazio tresnak (probak, ebidentziak)	Ebaluazio erremintak (Inplizituki neurri eskalak dituzte)
	Ikasleen ekoizpenak, jardun ebaluagarriak euskarri desberdinetan, haietatik ikasleen ikaskuntzari buruzko informazioa atera daitezke.	

<u>Klaseetan partaidetza, esku-hartzeak eta ekarpenak</u>	<u>Galdetegiak (Autoebaluazioa, koebaluazioa, test, ...)</u>	<u>Irakaslearen koadernoak</u>
<u>Talde lanean partaidetza</u>	<u>Lan digitalak</u>	Behaketa-zerrenda
Rol jokuen partaidetza	<u>Infografiak</u>	Kontrol-zerrenda
Ariketa fisikoak	<u>Aurkezpen digitalak</u>	Erregistroak
Kirol probak	<u>Eskemak</u>	Zenbaki-eskalak
Antzerki lanak	Portfolioa	<u>Errubrikak</u>
Elkarrizketak	<u>Lan koadernoak</u>	<u>Autoebaluazio edota koebaluaziorako taulak</u>
Entzumenak	(Laborategiko) Txostenak	Balorazio txantiloiak
Dialogoak	<u>Idatzizko azterketak euskarri desberdinetan</u>	Soluzionarioak
<u>Idatzizko frogak</u>	Idatzizko narrazioak	
<u>Ahozko adierazpenak</u>	Komikiak	
Podcast edo audio grabaketak	<u>Problema ebazpenak</u>	
<u>Bideoak</u>	(Sare) Mapak	

Kalifikazio-irizpideak (*"ebaluazioari buruzko oharrak" Genially*)

Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:

- Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea
- Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea.
- Gaitasunen garapen-maila adostea
- Berariazko gaitasunen ponderazioa, ebaluazio-irizpideak... definitzea) etab.

Kalifikazioa konpetentzia espezifikoek garapen maila modu kuantitatibo zein kualitatiboan neurtzen oinarrituko da, horretarako oinarria ebaluazio irizpideak izanik. Horretarako, ikasleen ebaluazioa egingo da ikasle bakoitzaren **ikaskuntza prozesuaren bilakaera etengabeko behaketa egingo da** tresna eta erreminta desberdinen bidez. Horiek goiko puntuan zehaztu dira. **Ebaluazio-irizpideek neurgarriak izan behar dute**, eta, beraz, deskribatzen dutena behatzeko mekanismo objektiboak ezarri behar dira, baita adierazle argiak ere, irizpide bakoitza zenbateraino bete den jakiteko. Hori da, kalifikazio irizpideetan zehazten duguna.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ahalik eta objektiboen kuantifikatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- **Koadernoa (% 10)**
 - ★ Itxura (% 25): *idazkera eta ortografia, marjinak, azpimarraketak, txukuntasuna...*
 - ★ Edukia (% 75): *koadernoa egunean eta zuzenduta izatea.*
 - ★ Irakasleak edozein eskola ordutan koadernoa eska lezake.
- **Eguneroko lana eta parte hartzea (% 10)**
 - ★ % 50: *Parte hartzea.*
 - ★ % 50: *Etxerako lanak, klaseko lanak.*
 - ★ *Eguneroko lanak ez egiteak %1aren galera dakar egun bakoitzeko.*

- **Idatzizko probak (% 60)**
 - ★ Ebaluazioan zehar egindako azterketen noten batez bestekoa.
 - ★ Aipaturiko atalaren bat ez bada ebaluatzen dagokion nota edukien atalean batuko da.
 - ★ Ebaluazio batean ez badago jarduera osagarriarik, dagokion puntua edukietara doa.
 - ★ Idatzizko arrazonamendua baloratuko da.
- **Gelako probak (% 10)**
 - ★ Emandako edukiak barneratuta egongo diren ala ez ebaluatuko da.
- **Jarduera osagarriak (% 10)**
 - ★ Proiektua eta txostena: (itxura eta emaitzen analisia)
 - ★ Euskaren erabilera, idatzia eta ahozkoa.

Hemen dago tresna horien lotura [Ebaluazio Irizpide eta Konpetentzia Espezifikoekin](#)

Neurketa kuantitatiboak maila zehatzago eta objetiboago batean garapen maila zehazten laguntzen du, eta, hori dela eta, ikasgai honen aurrerapenaren neurketa zenbakiduna izango da, eta, hurrengo taulan agertzen diren parekotasunen arabera doituko zaio ebaluazio kuantitatiboari (zentruak hala erabakita).

Kalifikazio kualitatiboa	Zenbakizko kalifikazioa
Gutxiegia	1-4,9
Nahikoa	5-5,9

Ondo	6-6,9
Oso ondo	7-8,9
Bikaina	9-10

BERRESKURATZEKO MEKANISMOAK

- ★ Ebaluazio bakoitzaren ostean, ikasleari ikasgaia berreskuratzeko aukera emango zaio, irakasleak egokien ikusten duen frogaren bidez. Beharrezkoa den kasuetan, gainditzeko behar besteko errefortzu ariketak egingo dituzte. Honetaz gain, hurrengo ebaluazioetan ikasleak izan dezakeen hobekuntza, kontuan hartuko da
- ★ Berreskurapen nota ≥ 7 bada, nota = 6 izango da
- ★ Berreskurapen nota < 7 bada, nota = 5 izango da, beti ere GAI izanik.

Ohiko azterketa

- ★ Kurtsoaren azken nota hiru ebaluazioen batez besteko nota izango da. 5 notara heltzen ez direnak, ohiko froga bat egin beharko dute ez gai diren konpententziak gainditzeko.

PENDIENTEAK

24-25 ikaturtean 2 DBH Natur Zientziak 2 gainditu barik duten ikasleek 25-26 ikasturtean bi aukera izango dituzte irakasgaia gainditzeko. Lehenengoa otsailean, HEDATZE 1. txandaren bukaeran eta bigarrena maiatzean. Ikasleak lana prestazeko irakasgaia jasoko du irailean eta azterketan galdera eta

ariketa antzekoei erantzun beharko diela jakinaren gainean dago ikaslea. 25-26 ikasturtean HEDATZE proiektuko indartze-saioetara ikasle horiek gonbidatuta egongo dira.

Hemen behean duzuen taula erabat berria da. Honen bidez bilatzen dugu legeak eskatzen duguna bideratzea zuei lan gehiago eman gabe. Ez dugu zehaztu zenbat aldiz egin behar den kurtsoan zehar, eta, noski, taula hau ez da orain bete behar, baina, erabilgarria suerta daiteke justifikatzeko programazioari egingo dizkiogun aldaketak ikusten badugu ezarri dugun metodologia, taldekatzea, ebaluazio tresna edo kalifikazio sistema egokiena ez bada.

Progamazioaren jarraipena eta ebaluazioa Irakaste prozesua bizia dago, eta, horregatik, programazio didaktiko hau bizia izateaz gain, etengabeko ebaluazioan egon behar duen tresna bat da. Hori dela eta, beheko taulari jarraituta, irakasleak kurtsoan zehar bere lana eta aurreikusita programazio hau ebaluatuko du.				
Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
	Material didaktikoa		Liburua zenbait gauza lantzeko ez da erabilgarria ikasleentzat	Material didaktiko propioa sortzea
	Erabilitako baliabideen aukeraketa.			

METODOLOGIA	Irakaslearen eta ikasleen rolak.			
	IDU printzipioen aplikazioa.			
	Taldekatzeak eratzeko irizpideak.			
	Egokitzapenak.			
	Espazioaren antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
PDaren ANTOLAKETA	Programazio-unitateen sekuentzia.			
	Programazio-unitateen antolaketa.			
	Konpetentzia espezifikoen eta ebaluazio irizpideen arteko lotura.			
	Oinarrizko jakintzen antolaketa.			

Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK	Erabilitako ebaluazio tresnak			
	Erabilitako ebaluazio erremintak.			
	Auto- eta ko-ebaluazioaren erabilera			
	Heteroebaluazioaren erabilera			
	Atzeraelikadura emateko sistema (arintasuna, bidea, eragina...)			
	Kalifikazio Irizpideak			
	Errefortzu eta zabaltze neurriak			